



ZESTOAKO UDALA

## **AKTA**

2019ko uztailaren 4an Udal Batzarrak buruturiko ezohiko saioari dagokiona.

Alkatea eta bederatzi korporakide bildu dira; batek ezin etorria adierazi du.

Ondorengo akordioak hartu dituzte:

**1.-** 2019ko ekainaren 15ean Udala eratzeko burututako bilkurako akta bere horretan onartzen da.

**2.-** Udalbatzarreko bilkuren alditasuna.-

Udal Batzarrak, bere kide guztien aho bateko adostasunarekin, ontzat ematen du Alkatetzak eginiko proposamena, eta beraz, erabaki hauek hartzen ditu:

**Lehena.-** Plenoak edo Udal Batzarrak hilean behin, azkeneko ostegunean, burutzea.

**Bigarrena.-** Tokiko Gobernu Batzarreko saioak hiru astetik behin, burutzea.

**3.-** Udal batzorde informatiboak sortzeko eta osatzeko proposamena.

Alkateak jakinarazten du, bi talde politikoaren artean harremanak izan direla batzordeen antolaketari buruz eta oposizioari batzordeak eskaini arren, ez onartzea erabaki duela. Ohikoa izan arren, pena hartzen duela baina erabakia errespetatzen duela adierazi du. Batzorde informatiboetako izendapenen berri eman du, horien osaketak honakoa izanik:

### HIRIGINTZA ETA PERTSONAL BATZORDEA

Burua: R.A.U., EH BILDU Udal taldekoa

Partaideak: - M.A.U., EH BILDU Udal taldekoa.  
- G.M.E., EAJ-PNV Udal taldekoa.

### OGASUNA ETA KONTUEN JARRAIPEN BATZORDEA

Burua: R.A.U., EH BILDU Udal taldekoa

Partaideak: - M.A.U., EH BILDU Udal taldekoa.  
- E.M.B., EAJ-PNV Udal taldekoa

### INGURUMENA ETA LANDA GARAPENA BATZORDEA

Burua: P.P.L., EH BILDU Udal taldekoa  
Partaideak: - M.A.U., EH BILDU Udal taldekoa.  
- J.M.M., EAJ-PNV Udal taldekoa

#### GAZTERIA, KIROLA ETA JAIK BATZORDEA

Burua: A.S.M., EH BILDU Udal taldekoa  
Partaideak: - N.O.L., EH BILDU Udal taldekoa.  
- K.M.C., EAJ-PNV Udal taldekoa

#### KULTURA ETA ONDAREA BATZORDEA

Burua: N.O.L., EH BILDU Udal taldekoa  
Partaideak: - A.S.M., EH BILDU Udal taldekoa  
- G.M.E., EAJ-PNV Udal taldekoa.

#### EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEA

Burua: A.S.M., EH BILDU Udal taldekoa  
Partaideak: - N.O.L., EH BILDU Udal taldekoa .  
- K.B.M.Ir., EAJ-PNV Udal taldekoa.

#### GIZARTE HARREMANAK ETA PAREKIDETASUNA BATZORDEA

Burua: B.Z.A., EH BILDU Udal taldekoa  
Partaideak: - P.P.L., EH BILDU Udal taldekoa  
- E.M.B., EAJ-PNV Udal taldekoa

#### SOZIOEKONOMIA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA BATZORDEA

Burua: M.A.U., EH BILDU Udal taldekoa.  
Partaideak: - N.O.L., EH BILDU Udal taldekoa  
- K.B.M.I., EAJ-PNV Udal taldekoa.

**4.-** Elkarte ezberdinetan parte hartzeko udal ordezkariaren izendapena.- Alkate jaunak jakinarazten du, Udalaz kanpoko batzordeak osatzeko garaian, bere taldeak egiten duen proposamena honako hau dela:

**Urola Erdiko Zerbitzuen Udal Elkartea edo Mankomunitatea:**

- M.A.U.. Ordezkoa: R.A.U.
- N.O.L. Ordezkoa: P.P.L.
- G.M.E. Ordezkoa: E.M.B.

**Urola Kostako Mendi Nekazaritza Elkartea (URKOME):**

- R.A.U.

**Herri Eskolako Kontseilua:**

- M.A.U.

**Ur Kontsortzioa:**

- R.A.U.

**Zaharren Egoitza:**

Lehendakari modura: M.A.U.

- Partaideak: - B.Z.A.  
- K.M.C.

**Udal Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA):**

- M.A.U.
- N.O.L.
- G.M.E.

**Ekain Fundazioa:**

- M.A.U.

**Haurreskolak Kontsortzioa.**

- B.Z.A.

Udal Batzarrak, bere kide guztien aho bateko adostasunarekin, ontzat ematen du Alkatetzak eginiko proposamena.

**5.-** Alkateorde, Gobernu Batzarreko kide eta batzordeburu izendapenei buruz Alkateak hartutako ebazpenen berri ematea.- Alkate jaunak ezagutzera ematen ditu Alkateorde, Gobernu Batzarreko kide eta Batzordeburu izendapenei buruz hartu dituen erabakiak:

**Lehenengoa.-** Lehen Alkateorde modura, N.O.L., eta bigarren Alkateorde modura, P. P.L., izendatzea.

**Bigarrena.-** Udal Gobernu Batzarreko kide bezala ondorengo zinegotzi hauek izendatzea:

- R.A.U., EH BILDU taldearen aldetik.
- N.O.L., EH BILDU taldearen aldetik.
- G.M. Et., EAJ-PNV Udal taldekoa.

**Hirugarrena.-** Izendapen hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**6.- Alkatetzaren eta Alkateordetzaren liberazioa eta soldata mailak finkatzeko proposamenak.-** Alkate jaunak adierazi du soldatak jaisteko asmoa duela bere taldeak. Legez 30. maila izateko eskubidea izan arren, beste kopuru batzuk duinak direla gehitu du. Pasa den legegintzaldian Udalhitzeko 25. maila ezarri zen eta orain 21. maila ezartzea proposatu du.

Orain proposatzen dena, alkatea %100an eta bi zinegotzi bakoitza %33an soldata berdinekin. Bat koma bostetik bat koma hirurogei eta seira pasatzen dela adierazi du.

Zinegotzi eta taldeen asignazioak berdin mantenduko direla adierazi du.

Azalpen horien ondoren, Udal Batzarrak, EH Bildu-ko sei korporakideren aldeko botoekin eta EAJ-PNV-ko bost korporakideren abstentzio botoekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Lehena.-** Alkate jaunaren lanaldi osoko liberaziorako soldata maila Udalhitz-eko 21.ean finkatzeko proposamena ontzat ematea (urteko 44.622,90 euro gordinekoa).

Azalpen horien ondoren, Udal Batzarrak, EH Bildu-ko sei korporakideren aldeko botoekin eta EAJ-PNV-ko bost korporakideren kontrako botoekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Lehena.-** N.O.L. eta R.A.U. zinegotzien % 33eko lanaldirako liberazio soldata maila Udaltz-eko 21.ean finkatzeko proposamena ontzat ematea (urteko 22.311,45 euro gordinekoa).

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko zortziak eta berrogei minutu direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

O. E.  
ALKATEAK,

